



>>>

EUSKARA LAN MUNDUAN...
LANEANI!

5

EKOLINGUISTIKAREN DISKURTSOA LAN-MUNDUAN

Abel Irizar Mantzidor

EMUN Koop. Eko proiektu-arduraduna eta aholkularia
Helbide elektronikoa: abel@emun.com

1. SARRERA

Mundua globalizazio prozesuan murgilduta dago. Aldaketa teknologiko, ekonomiko, sozial eta kultural ugari dakar globalizazioak. Hizkuntzen arteko harremanen konfigurazioa ere aldatzen ari da eta, ondorioz, zuzenean eragiten ari da globalizazioa hizkuntzen osasunean. Adituen ustez, hizkuntza gutxituak ahultzea eta komunitate txikiak desagitea eragingo du. Bestalde, globalizazioaren aurrean hizkuntza gutxituei aukera berriak ere sortzen zaizkiela diote adituek.

Ekonomiaren alorrean ere aldaketa nabarmenak gertatzen ari dira. Mugarik gabeko merkatua da gaur egungoa. Enpresek mundu osoa dute merkatutzat eta, krisiak krisi, kapitalismoaren eredu neoliberal nagusi da munduan. Enpresak negozio-aukera berrien bila atera dira mundura, lehiakortasunari eusteko ahaleginean. Mendebaldeko gizartea da munduko ondasun gehienen saltzaile eta kontsumitzaile; gu gara munduko hondakin gehienen sortzaile. Hala ere, herrialde pobregoetako eskulana eta lehengaiak ustiatzen ditugu. Han sortzen ditugu hondakinak, eta hemen poltsikoratzen ditugu etekinak. Globalizazioaren eta merkataritzaren liberalizazioaren eragina nabarmen ari da nozitzen gure planeta.

Enpresa handien eragina gero eta handiagoa da munduan. Mundializazio horrek eraginda, presio-taldeak sortzen ari dira, eta multinazionalak eskatzen diete beraien jarduna gizatiarrago izan dadin.

Zer nolako politika darabilte nazioartera zabaldua dauden enpresa multinazionalak? Errespetuz jokatzeko al dute lekuan lekuko gizarteko natur eta kultur balioekin? Zein hizkuntzatan mintzatzen dira? Hartzen al dute balio sozialen arabera neurri ekologikorik? Eta zertan dira *gure* eskalaren enpresak? Horiexek dira lan honen abiapuntuko kezka eta galderak.

Azterlan honek bi helburu nagusi ditu:

- Alde batetik, hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa enpresetarako egokitzea eta moldatzea. Alegia, saiatu naiz hizkuntzen garapen iraunkorraren kontzeptua enpresen gizarte-erantzukizunarekin uztartzen eta diskurtsoa enpresa-errentagarritasunarekin lotzen, enpresaburuentzat sinesgarria izan dadin.
- Bestetik, Fagor Taldeko enpresa baten nazioartekotzearen praktika linguistikoa aztertu dut, eta hizkuntzen kudeaketa iraunkorra optimizatzeko jarraibide teoriko-praktikoak proposatzen saiatu naiz.

Hauxe da lan honetan aurkeztu dudana hipotesia: hizkuntza-garapen iraunkorraren printzipioa enpresaren jardun linguistikoa integratzea onuragarria izan daiteke bai enpresaren errentagarritasunerako, bai enpresako langileen garapenerako, eta baita hizkuntzen osasunerako ere.

Labur esanda: nazioartean hizkuntzak ekolinguistikaren bidetik eta iraunkortasunez kudeatzea ona da enpresarentzat, langileentzat eta lekuan lekuko gizartearentzat.

Batez ere maila teorikoko lanketa da egin dudana. Hemen proposatzen dudana praktikara eramateak kasuan kasukoa ondo aztertzea, lekuan lekuko errealiterako ondo egokitzea eta beste hainbat faktore kontuan hartzea eskatuko luke.

2. HIZKUNTZA EKOLOGIA ETA HIZKUNTZEN GARAPEN IRAUNKORRA

2.1. Munduko hizkuntza-aniztasunaren diagnostikoa

Globalizazioaren eraginez asko zabaltzen ari da ingelesaren erabilera mundu osoan. Askok hizkuntza neutral gisa hartzen dute ingelesa; ez da hala, ordea. Ingelesa kultura anglosaxoiaren sinboloa da, eta horrek badi-tu makina bat konnotazio saihestezin. Argi azaltzen du hori Unescok munduko hizkuntzei buruzko txostenean: *Ingelesa ez da, inondik inora, gizateria nazioarteko bihurtuz joatearekin lotutako hizkuntza neutrala. Guk nahi ala ez, ingelesa kultur mota zehatz eta jakin batekin lotzen da; beste edozein bezain duin eta baliotsua, noski, baina inola ere ez maila altuagokoa.*

Hizkuntza-garapen iraunkorraren printzipioa enpresaren jardun linguistikoa integratzea onuragarria izan daiteke bai enpresaren errentagarritasunerako, bai enpresako langileen garapenerako, eta baita hizkuntzen osasunerako ere.

Hizkuntza-ekologiaren teoriak hizkuntzak espezie bizidunak balira bezala kontsideratzen ditu eta, metafora eginez, ekologiaren paradigma aplikatzen die hizkuntzei ere. Horrela, hizkuntzen ikuspegi ekosistemikoan zentratzen da diskurtso hori.

Ingelesa hedatzeak beste kultura eta hizkuntza batzuk menderatzea dakar, eta baita horien galera ere. Ingelesaren hedapen masiboak kalte handia egiten dio hizkuntzen elkarbizitzari, eta, gainera, pentsaera elebakarreranzko bidea da.

Ikerlari askoren ustez, hizkuntzen desagertzea izango da XXI. mendeko arazo sozialik larrienetakoa. Munduan mintzatzen diren 6.000 hizkuntzen %90 galtzeko arriskuan daude, eta galera-erritmoa azkartzen ari da. Hizkuntzalariei arabera, gaur egun hizkuntzek 100.000 hiztun behar dituzte, gutxienez, bizirik iraun ahal izateko. Munduan dauden 6.000 hizkuntzetatik erdiek 10.000 hiztun baino gutxiago dituzte eta laurdenak ezta 1.000 hiztun ere. Hogei dira hainbat milioi hiztun dituzten hizkuntza bakarrak. Hizkuntzak ez dira inoiz orain bezain azkar galdu. Iragarpenik ezkorrenen arabera, denon ondare diren hizkuntzen %50 gutxienez hil egingo dira XXI. mende honetan.

Nolanahi ere, hizkuntza-aniztasunaren gaia esnatzen hasi da azkenaldian. Pertsonen eta hizkuntzen arteko ekitate-printzipioan oinarrituta, 1996an Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen Bartzelonan. Horrez gain, 18 estatuk Europako Hizkuntza Gutxituen Gutuna sinatu zuten 2001ean. Frantziak, esate baterako, ez zuen sinatu. 1999ko abenduan 69 estatuk eleaniztasunaren aldeko erabaki-proiektua aurkeztu zuten Nazio Batuen Biltzar Nagusian. Proiektu ugari abiarazi nahi dira mundu osoan, lankidetzatik abiatuta.

2005eko azaroan Europako Batzordeak *Una nueva estrategia marco para el multilingüismo* txostena egin zuen eta hizkuntza-aniztasunaren aldeko neurriak bultzatu ditu estatukideen artean. Txostenean ondorio modura aipatzen da eleaniztasuna behar-beharrezkoa dela Europar Batasunak ondo funtziona dezan. Europako herritarren ezagutza linguistikoa hobetzea inportantea da Europak hazkunde ekonomiko iraunkorra lor dezan. Beraz, EBk estatukideei erantzukizunez jokatzeko eskatu die eta hizkuntza-identitate guztiak errespetatzen dituen gizartea sortzea aldarrikatu du. Kezka gero eta handiagoa da eta, poliki bada ere, erakundeak arduratsuago jokatzeko hasiko diren zantzuak daude.

2.2. Hizkuntzen garapen iraunkorra helburu

— **Hizkuntza-ekologiaren bidea.** Ingurumenaren alorrean, hauxe da ekologiaren benetako erronka: nola uztartu garapen ekonomikoa eta soziala planetaren natur oreka arriskuan ipini gabe. Hizkuntza-ekologiaren teoriak hizkuntzak espezie bizidunak balira bezala kontsideratzen ditu eta, metafora eginez, ekologiaren paradigma aplikatzen die hizkuntzei ere. Horrela, hizkuntzen ikuspegi ekosistemikoan zentratzen da diskurtso hori.

Pablo Suberbiolak argi azaltzen ditu hizkuntzen ekosistemen ingurukoak: *“hizkuntzaren iraunkortasuna edo ezintasuna ez dago bere ezaugarrien*

baitan, baizik eta kokatzen den ekosistema soziokulturalaren baitan, non errealtatearen beste elementuekin harremana baitu. (...) Hizkuntza ordezkapen eta ukapen prozesuetan, hauek gertatu izan dira argi eta garbi elementu berriak sartu direlako ohiko ekosisteman, azkenean ber-des-antolarazi dutenak, beste fase batera pasaraziz. Linguosfera honela uler genezake: etengabeko kanpo eta barne orekan dagoen ekosistema soziolinguistikoen multzoa, eta bere baitan norbanakoez erabiltzen dituzte kodeak edo/eta erabiltzeari utzi beren etengabeko komunikazioan. Ekosistema hauetan, gizakien buru-garunak, gaitasunak, jokaerazko ohiturak, irudikapen kognitibo-emotiboek, azpi-talde soziologikoez, enpresek, merkataritzak eta beste gizarte-erakundeek, komunikabideek, hezkuntza erakundeek, eta gobernu zein administrazio publikoak bezalako elementuek eusten diete elkarreki-komunikazio sistema diren horiei, hizkuntzei alegia.”

Hizkuntza-ekologia aplikatzea linguosfera hori guztia orekan mantentzea da, hortaz. Horrez gain, hizkuntza ekologiaren teoriak hizkuntzen arteko berdintasuna aldarrikatzen du: hizkuntza guztiak dira berdinak eta ez da egin behar hizkuntzen arteko hierarkizaziorik. Hizkuntza-komunitate guztiek dute duintasunez bizirauteko eskubidea eta denei eskaini behar zaie garapen osorako aukera. Hizkuntzak galbidean daudenean, hizkuntzak biziberritzeko eta normalizatzeko plangintzak abian jartzea da bitartekorik eraginkorrena, kaltetutako ekosistema soziolinguistikoa bere onera buelta dadin.

— **Ekolinguistika.** Ekologiaren eta linguistikaren artean sortutako kontzeptua da, eta hizkuntza guztiak elkarrekin orekan bizitzeko modua proposatzen du. Alegia, hizkuntza handiak eta txikiak elkarrentzat mehatxu izan gabe modu iraunkorren elkarren ondoan bizitzea posible dela proposatzen du. Horretarako, hizkuntza erabilien eta hizkuntza gutxituen arteko oreka proportzionatua lortzea da gakoa, erabilera-funtzioak ondo banatuz. Beraz, eleaniztasuna ondo ordenatzeko modua proposatzen die enpresei ekolinguistikak. Hizkuntza bakoitza zertarako erabiliko den ondo planifikatzean datza.

Ikerketa batek matematikoki frogatu du bioaniztasunaren eta hizkuntza-aniztasunaren artean korrelazio zuzena dagoela: aniztasun biologiko handia duten estatuetan hizkuntza-aniztasuna ere handia da, eta alderantziz. Arriskuan dauden hizkuntzak endemikoak dira, landareak eta animaliak bezala, eta gure planetak sufritzen duen krisi biologikoak, kulturalak eta linguistikoak kausa edo jatorri bera duenez, hiru arazoei planteamendu integral beretik abiatuta eman behar zaie soluziobidea.

Enpresek gure planetako bioaniztasuna zaintzeko neurri ekologikoak hartu beharra onartu duten bezalaxe, kontzientzia kolektiboa sortu behar dugu hizkuntza-aniztasuna aberastasun modura mantentzeko ideien inguruan ere. Globalizazioak kulturen arteko ukipena bultzatzen du, baina hurbiltasun hori mesederako izatea lortu behar dugu, mehatxurako izan beharrean. Horretarako, beharrezkoa da munduko

Beraz, ekolinguistikaren ikuspegitik, nazioartekotutako enpresen kasuan helburua da enpresen nazioarteko interbentzioak ez kaltetzea lekuan lekuko ekosistema soziolinguistikoa.

Adituen ustez, giza-eskubideak, legeria eta ingurumena zaintzen dituzten multinazionalak harrera hobea daukate gizartean. Hau da, gizartearen aurrean bere kudeaketa balio etikoetan oinarritutakoa dela frogatzen duenak lortuko du gizartearen aurreko legitimitate morala.

hizkuntzen arteko elkarbizitza global eta iraunkorrerako eredu on bat sortzea. Ekolinguistikak hizkuntzen garapen iraunkorraren kontzeptuan oinarritutako eredu eskaintzen digu, eta uste dut eredu baliagarria dela nazioartekotutako enpresentzat.

— **Hizkuntza-garapen iraunkorra.** Hauxe da garapen iraunkorraren definizioa, Brundtland Txostenaren arabera: ondorengo belaunaldiak beren beharrak asetzeko ahalmena baldintzatu gabe gaur egungo beharrak ziurtatzeko modua. 1987. urtean Brundtland Txostena onartu zen, eta ordutik hona garapen iraunkorraren terminoa etorkizuneko erreferente ekonomiko gisa erabiltzen da.

Garapen iraunkorrak dio posible dela ekonomikoki garatzea, baina horrek ez duela zertan ekarri baliabide naturalak suntsitzea eta galtzea betirako. Nolabait uztartu egiten ditu ekonomikoki garatzearen kontzeptua eta baliabide (espezie) naturalak mantentzearen ideia.

Kontzeptu hori hizkuntzen kasura ekarri sortu da, hain zuzen ere, hizkuntza-garapen iraunkorraren kontzeptua: esparru komunikatibo handiagoko hizkuntzen ezagutza eta erabilera taldeko hizkuntzen biziraupen eta sustapenarekin bateragarri egitea planteatzen du. Hau da, hiztunok eremu zabaleko hizkuntzak jakitea (eta erabiltzea) proposatzen du, baina era berean geure jatorrizko hizkuntzari uko ez egitea eta geure hizkuntza garatzea eta sustatzea egunerokoan. Gauza biak bateragarriak direla planteatzen digu hizkuntza-garapen iraunkorrak.

Beraz, ekolinguistikaren ikuspegitik, nazioartekotutako enpresen kasuan helburua da enpresen nazioarteko interbentzioak ez kaltetzea lekuan lekuko ekosistema soziolinguistikoa. Alegia, hizkuntza guztien biziraupenaren aldeko eragile positibo modura joka dezatela, hizkuntzen kudeaketa iraunkorra bultzatuko duten politikak garatuz.

— **Subsidiarotasun-printzipioa.** Hizkuntzarik erabilienean eta hizkuntza gutxituen arteko oreka proportzionatua lortu ahal izateko, oso tresna edo irizpide eraginkorra (eta beharrezkoa) da subsidiaritasunarena. Printzipio horren arabera, menpeko hizkuntzari funtzio eskusiboak eta eraginkorrak eman behar zaizkio. Alegia, hizkuntza *lokalean* egin daitekeen guztia hizkuntza lokalean egin behar da, eta hizkuntza *globalagoak* funtzio globaletarako utzi behar dira (tokiko hizkuntzan egin ezin denerako).

Printzipio hori aplikatuz lortuko da hizkuntza bakoitzari bizirauteko behar dituen funtzioak ematea eta hizkuntza guztiak modu iraunkorrean garatzea. Horrela lortuko da ekosistema soziolinguistikoko hori osasuntsu eta orekan mantentzea.

3. HIZKUNTZA-GARAPEN IRAUNKORRA, ENPRESEN GIZARTE ERANTZUKIZUNA GARATZEKO

Honela defini daiteke Enpresen Gizarte Erantzukizuna (EGE): “Enpresak gizarte eta ingurumen mailako kezak kontuan hartzea da, merkataritzako eragiketetan eta hizketakideekiko harremanetan”.

- Gizarte erantzukizuna enpresek nahita hartzen duten jokabidea da, euren betebeharrak juridikoak gainditzen dituen jokabidea, horrek epe luzera mesede egiten baitio euren interesari.
- Garapen iraunkorraren kontzeptuari estu lotuta dago: enpresek ondorio ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak integratu behar dituzte euren jardueretan.
- Gizarte erantzukizunak eragina dauka (izan behar du) enpresaren estrategian eta kudeaketa osoan.

Hizkuntzen garapen iraunkorrak, beraz, ekarpen aberasgarria egin diezaiokete dimentsio horri. Hobeto esanda, EGEk eta ekolinguistikak oso ondo elika dezakete elkar. Gizarte erantzukizuneari sinesten duen enpresentzat, ingurumenaren alde eta munduko hizkuntzen alde neurri *ekologikoak* hartzea gauza bera da.

Hona hemen hainbat arrazoi enpresek EGEn barruan gestio ekolinguistikoa aplikatu dezaten.

3.1. Nazioartekotutako enpresetan praktika ekolinguistikoa burutzeko arrazoiak:

Enpresak hiztunez osatutako komunitateak dira eta enpresa guztiek daukate hizkuntza-politika jakin bat. Politika hori esplizitua ala inplizitua izan daiteke, baina praktikan hizkuntzek funtzioak betetzen dituzte egunero enpresetan. Enpresa kudeatzeak hizkuntzak kudeatzea eskatzen du, hortaz. Eta globalizazioaren eraginez, hizkuntzak kudeatzeko premia handitzen joango da etorkizunean. Nolanahi ere, kontua da modu erreaktiboa jokatu beharrean, enpresak modu proaktiboan jokatzera bultzatzea, hizkuntzen kudeaketa aurreratua enpresaren lehiakortasuna hobetzeko aukera modura planteatuz.

- a) **Glokalizazioa:** globalizazioaren eta lokalizazioaren kontzeptuak nahastetik datorren terminoa da, eta kontzeptu hau aplikatzeak ezinbestean dakar enpresa lekuan lekuko ingurunearen ezaugarrietara egokitzea, bere produkzioak eskaera lokalen arabera bereiziz. Bestalde, muga ekonomiko, politiko eta sozialak desagertzen ari diren mundu global honetan, oztopo kulturalak handitzen ari dira, kultur

Zuzeneko erlaziora dago hizkuntzen eta esportazio-jardunaren arrakastaren artean. Lau elementu klabe daude arrakasta izateko nazioartean: hizkuntza-estrategiak finkatuta izatea; tokian tokiko jatorrizko hiztunak kontratatzea; langile eleanitzak izatea; eta itzultzaileak eta interpretariak erabiltzea.

Diskurtsoak eta argudioak alde batera utzita, ikerketa baten emaitza ekarri nahi dut lerro hauetara, praktika ekolinguistikoa nola gauzatu daitekeen kasu praktiko baten bidez ikusi ahal izateko. FAGOR Etxetresna Elektrikoak kooperatibak nazioartean zeukan praktika linguistikoa aztertu nuen 2007an.

globalizazioaren aurrean bere tradizioak eta kultur identitatea defendatzen dituzten pertsonak baitaude. Beraz, lekuan lekuko identitate-ek balioa eta indarra hartzen ari dira, eta multinazionalak kontuan hartu beharko dute hori.

b) Win to win: Enpresen arteko negozioretan bezala, alde biek irabazteko planteamendua da beti onena. Hizkuntzen arloan ere gizartearentzat onuragarria dena eta enpresen intereserako onena dena da hauturik egokiena. Nire hipotesiaren arabera, ekolinguistikaren paradigma enpresan aplikatzeak onurak ekarriko dizkie langileei, enpresari eta hizkuntzei.

- Langileei begirako onurak: eleanitzak izatera bultzatuko ditu langileak. Eta hori oso aberatsa litzateke arlo profesionalerako eta norbere garapen pertsonalerako.

- Enpresari begirako onurak: Langile eleanitzen sarea izateak harremanetarako eta negozioretarako aukerak ematen ditu, azken finean merkatuak elkarriketak baitira. Enpresaren intereserako askoz ere aberatsagoa da hizkuntza ezberdin asko menperatuko dituen langile-sarea izatea, langile ingelesdunak besterik ez izatea baino.

- Hizkuntzei begirako onurak: Lan-arloko funtzioetan hizkuntza gutxiutuak erabiltzea oso onuragarria da hizkuntza gutxituen normalizaziorako eta inguruko enpresak normalizazio bidean jartzeko. Horrek prestigioa emango dio hizkuntzari eta estatusa mantentzen lagunduko dio.

c) Legitimitate morala eta gizartearen onespina: Adituen ustez, giza-eskubideak, legeria eta ingurumena zaintzen dituzten multinazionalak harrera hobea daukate gizartearen. Hau da, gizartearen aurrean bere kudeaketa balio etikoetan oinarritutakoa dela frogatzen duenak lortuko du gizartearen aurreko legitimitate morala. Beraz, barne-bezeroen (langileak) eta kanpo-bezeroen (hornitzaileak, kontsumitzaileak, erakundeak...) hizkuntza eskubideak errespetatzea lortzen duten enpresek errazago lortuko dute gizartearen onespina.

d) Gardentasun-irudia, konfiantza, marka-irudia, fidelitasuna eta errentagarritasun ekonomikoa: Enpresek badakite aktibo ukiezinak direla enpresari eta markaren irudiari balio erantsia ematen diotenak. Iraunkortasunaren bidetik eta ingurumena zainduz, enpresa askok badaki gardentasun irudia emango duela gizartearen aurrean. Horrek sinesgarritasuna emango dio enpresari, eta bezero eta bezero-gaiengan konfiantza sortuko du, enpresarekiko eta markarekiko pertzepzioa hobetu egingo da, salmentek gora egingo dute eta horrek errentagarritasuna ekarriko du epe luzera.

Horretan ere lagun dezake ekolinguistikak. Alegia, irabazi ukiezinak ekarriko dizkio enpresari. Etekinak ezin dira dirutan zenbatu, baina balio erantsi handia ematen diote enpresari, enpresaren irudia hobetzen laguntzen baitu.

e) **Berrikuntza, enpresak garatzeko. Ekolinguistika, berritzen laguntzeko:** Adituek diote errentagarria dela enpresan berrikuntzak egitea. Bada, prozesu berritzaile bat gehiago aktibatzen lagun diezaioke hizkuntza-garapen iraunkorrek enpresei. Adituek diotenez, enpresa berritzailearen ikuspegitik *Pertsonak (langileak) ez dira baliabide (enpresa garatzeko), xede baizik. Enpresa dagoeneko ez da xede, (langileak garatzeko) baliabide baizik.* Pertsonen garapenaren bidez lortuko du enpresak arrakasta, azken batean. Ekolinguistikaren itzalpean hezitako langile eleanitzek askoz garapen pertsonal eta profesional maila handiagoa izango dute elebarrak edo elebidunek baino.

Komunikazioan ondo asmatuz gero, nazioartean lehiakideengandik desberdintzeko elementu berritzailea izan daiteke hizkuntzen kudeaketa iraunkorrena.

f) **Enpresaren politikak inguruari egokitu vs. Ingurua enpresaren politiketara egokitu:** Nazioartera zabaldutako enpresek ez diote begiratu behar hizkuntza gutxituari edo hizkuntza-aniztasunari arazo-iturri bezala, aukera modura baizik. Zinemara gurgildun aulkian datorren pertsonaren kasuan, zein da arazoa, aulkia ala eskailera? Eskailera, noski. Beraz, arazorik egotekotan, arazoa eleaniztasuna kudeatzeko gaitasun falta da, eta ez hizkuntza-aniztasuna bera. Oztopo mentalak ere gainditu beharra dago, hortaz, eta eredu sozial hori barneratzea da gakoa merkatu globalizatuan lehiarako abantaila izateko.

Ondorioz, enpresen politikak lekuan lekuko beharretara egokitzea da koherentea, eta ez lekuan lekuko errealitatea enpresen politiketara egokitzea.

g) **Hizkuntza guztiak kudeatzeko markoa:** Euskal enpresa askotan martxan daude euskara normalizatzeko planak, eta enpresa horietan ondo zehazten dira euskararen funtzioak eta politikak, batez ere gaztelaniarekiko osagarritasunean. Hala ere, nazioartekotzeak indarra hartzen duen neurrian, beste hizkuntza batzuekin interferentziak sortzen hasten dira (ingelesa, frantsesa,...) eta euskararen espazioa eta funtzioak kolokan jartzen dira. Beraz, euskararentzako politikak ez ezik, enpresak behar du hizkuntza guztiak kudeatzeko beste marko orokor bat. Eta horixe da hizkuntzen kudeaketa ekolinguistikoak eskainiko diguna, munduko (enpresako) hizkuntza guztientzako baliagarria den marko orokorra. Alegia, euskararen onerako ez ezik, beste hizkuntza guztien onerako den markoa.

h) **Aukera-kostuak kalkulatu:** Finantza alorrean enpresek kontzeptu hori erabiltzen dute. Zer galtzen du enpresa batek bere gestio-sisteman hizkuntza-kudeaketa iraunkorren balio erantsia ustiatzeari uzten dion bakoitzean? Zer bait irabazteko aukera galtzen ari da etengabe: irudia, ospea, berritzaile izateko aukera, erreferente izatea, lehiakideekiko ezberdintzea, kontsumitzailearekin

Ingelesari funtzio guztiak emateko tentazioa izan dezakete enpresek, baina uniformizazioa saihestu egin behar da, ekolinguistikaren printzipioari kasu eginez. Horrek ez du esan nahi ingelesa erabili ezin denik, baina ingelesa nonahi eta zernahitarako ez erabiltzeko irizpidea zaindu egin behar da.

bere hizkuntzan komunikatzea, erosle potentzialen gure markarekiko pertzepzioa...

i) Ikerketa baten ondorio argiak: 2005ean ikerketa bat egin zuten CILT britainiar erakundeak eta nazioarteko ikerlari talde batek, elkarlanean, Europako Batzordeko Hezkuntza eta Kultura zuzendaritzak aginduta: *ELAN: Effects on the European Economy of Shortages of Foreign Language Skills in Enterprise*.

Ikerketa horretan, Europako 29 estatutako ia 2.000 enpresa esportatzaile aztertu ziren, eta ikerketaren helburua zen aztertzea Europako enpresak atzerriko hizkuntzetan trebatuta ez egoteak zer nolako eragina zeukan Europako ekonomian. Hauexek dira txostenetik ateratako ondorio esanguratsu batzuk:

- Europako enpresa esportatzaileen %11 (945.000 enpresa txiki eta ertain) negozio-aukerak galtzen ari dira hizkuntza-trebetasunik ez dutelako.
- Zuzeneko erlazioa dago hizkuntzen eta esportazio-jardunaren arrakastaren artean. Lau elementu klabe daude arrakasta izateko nazioartean: hizkuntza-estrategiak finkatuta izatea; tokian tokiko jatorrizko hitzunik kontratatzea; langile eleanitzak izatea; eta itzultzaileak eta interpretariak erabiltzea.
- Horrez gain, ingelesa hizkuntza klabea da nazioarteko merkatuetan sartzeko, baina argazkia hori baino askoz ere konplexuagoa da eta ingelesaz gain beste hizkuntza asko behar dira negozioetarako. Hau da, ingelesa ez dela mundu osoko hizkuntza.
- Enpresen %10 inguruk diote oztopo soziokulturalak ere izan dituztela negozioak egiteko orduan.
- 29 estatutatik 15ean enpresen %50ek diote ez daukatela hizkuntza-estrategiarik.
- %46k diote hurrengo hiru urteetan merkatu berrietan sartzeko asmoa dutela.

Emaizta horiek ikusita, ingeles hitzunik diren herrialde europarren kasua hobeto aztertu du CILT erakundeak eta Britainia Handirako ondorio partikularrak atera ditu:

- Britainiar enpresak negozio-aukerak galtzen ari dira eleanitzak ez izateagatik (elebakartasuna arazo-iturri).
- Britainiar enpresak dira nazioarteko merkatuetan desabantaila handiena dutenak.
- Bezeroekin, lankideekin eta negozio-bazkideekin (filialekin) eraginkortasunez komunikatzea erabakigarria da lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa lortzeko.

- Britainiar enpresek ez dute pentsatu behar ingelesa nazioarte-ko lingua franca denik, hori akats handia baita.
- Negozioetarako hizkuntza-trebetasunak garatzeak onura ekonomikoak, sozialak eta pertsonalak dakartza, eta ateak irekitzen ditu.

Ondorio modura: hizkuntza-oztopoen atzean, askotan merkatu-aukera bikainak ezkututzen dira.

Britainiarrak konturatu dira zein inportantea den enpresek ingelesaz gain beste hizkuntzak ere erabiltzea. Frogatu egin dute egunero dirua eta negozio-aukerak galtzen ari direla hizkuntza-gestio kaskarra egiten dutelako (ingeles hutsez, ele bakarrean). Hortaz, hizkuntza-politkarik eraginkorrena daukanak beti pauso bat aurrerago joateko aukera izango du.

3.2. Hizkuntza-politkarik eraginkorrena nazioartekotzerako

Eta zein da, bada, hizkuntza-politkarik eraginkorrena? Ikerketa horren emaitzei kasu eginez gero, hauxe: Hizkuntza-politkarik eraginkorrena >> Eleaniztasuna ondoen kudeatzen duena

Hortaz, enpresak ondo kudeatu beharko du eleaniztasuna. Kontuan hartu beharko dira enpresak non kokatuta dituen bere plantak eta enpresak bere merkataritza-jardunak non bideratu nahi duen. Hiru faktore kla-be egon daitezke:

- a) Langileen hizkuntza-ezagutza ahalik eta egokiena eta osatuena leku bakoitzerako eta lanpostu bakoitzerako.
- b) Leku bakoitzean hizkuntza-erabilera ahalik eta egokiena eta osatuena: tokian tokiko hizkuntza-errealitatera ahalik eta ondoen egokitu-tua (barne-bezeroak eta kanpo-bezeroak gogobeteko dituen).
- c) Hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko teknikak, tresnak eta aurrerapen teknologikoak ondo kudeatzea. Alegia, ingeniaritza linguistikoa hizkuntza-aniztasuna indartzeko eta hizkuntza gutxituen onurarako baliatu: itzultzaile automatikoak, itzulpen memoriak, hiztegiak etab.

Eta zein hizkuntza-ereduk lor ditzake emaitzarik onenak? Zein formula izan daiteke eleaniztasuna kudeatzeko egokiena? Hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen. Munduko hiztun-komunitate guztiengana iristeko gai dena eta bakoitzari behar duena emango diona. Bada, horixe da, hain zuzen ere, hizkuntza-garapen iraunkorrak proposatzen duena.

4. IKERKETA: FAGOR TALDEKO ENPRESA BATEN NAZIOARTEKOTZEA

Diskurtsoak eta argudioak alde batera utzita, ikerketa baten emaitza ekarri nahi dut lerro hauetara, praktika ekolinguistikoa nola gauzatu daite-

keen kasu praktiko baten bidez ikusi ahal izateko. FAGOR Etxetresna Elektriako kooperatibak nazioartean zeukan praktika linguistikoa aztertu nuen 2007an. Horretarako, produkzio plantetako arduradun batzuekin egin nituen elkarrizketak, eta iraunkortasuneko txostena ere aztertu nuen.

Fagor E. E.k hainbat lekutan ditu fabrikak nazioartean: Hego Euskal Herrian (Gipuzkoa eta Bizkaia), Polonian (Wroclaw), Marokon (Mohammedia), Frantzia (Paris, La Roche, Alzenay, Vendome, Orleans eta Lyon), Italian (Veloranoova) eta Txinan (Shangai).

Horrez gain, hainbat filial ditu mundu osoan, baina horiek ez dituzte aztertu eta fabrika nagusietako harremanetan zentratu nintzen batik bat.

Ikerketa honek lau helburu zituen. Helburu bakoitzaren azpian idatzi dituzte labor-labor helburu bakoitzarekin lotutako emaitzak:

- Batetik, Fagor-en balio kooperatiboak eta korporatiboak aztertzea, eta Fagor-ek gizarte erantzukizunarekin daukan konpromisoa aztertzea.

Emaitza: Fagor-ek bere balioen artean dauka garapen iraunkorraren kontzeptua, eta bere gestio-sisteman oso ondo integratuta dago ingurumena zaintzeko hainbat jarduerak, prozesu modura antolatuta. Gainera, Fagor-ek enpresaren gizarte erantzukizunari erantzuteko borondate garbia azaltzen du bere kudeaketa aztertuz gero, eta arlo hori ondo lantzeak enpresari onura eta errentagarritasuna ekarriko diola uste du.

- Bestetik, hizkuntza-garapen iraunkorraren printzipioa (diskurtsoa) Fagor-en nola uztartu litekeen aztertzea eta enpresa-errentagarritasunarekin izan ditzakeen loturak aztertzea.

Emaitza: Euskal Herriko plantetan euskara planak martxan dituzte Fagor-ek eta horrek adierazten du maila lokalean (matrizean) gutxienez praktikara eraman duela gizartearekiko konpromisoa. Horrez gain, Fagor-eko iraunkortasuneko arduradunak dio gizarte-erantzukizunaren barruan oso ondo integratu daitekeela kudeaketa ekolinguistikoa eta horrek etekin ukiezinak eta balio erantsia eman diezazkiokeela Fagor-i, eta irudirako ere inportantea izan daitekeela.

Bestalde, adierazpen interesgarriak¹ jaso nituen Euskal Herritik Fagor-eko atzerriko plantetako arduradun postuetara joandako pertsonen ahotik, beraien hizkuntza-esperezien inguruan. Laburbilduz, eta oro har, ondorioa da lekuan lekuko hizkuntzak ikasteak eta erabiltzeak balioa daukala beraien ustez.

- Fagor-en nazioarteko praktika linguistikoa aztertzea (plantaz plantak) eta ondorioak ateratzea.

Emaitza²: eranskineko taulan ikus daitekeenez, Fagor-ek 12 hizkuntza erabiltzen ditu orotara eta aniztasuna handia da, baina plantetako funtzio nagusiak 8 hizkuntzatan burutzen dituzte Fagor-ek eta leku horietan 14 hizkuntza agertzen dira hizkuntzen mapan. Beraz,

lekuan lekuko estatu-hizkuntzak erabiltzen ditu batez ere, eta nik 5 hizkuntza gutxituri funtzio gehiago (eta 5 estatu-hizkuntzari funtzio gutxiago) emateko aukera hobeto aztertzea proposatzen dut, kasuan kasuko aukera errealak sakonago aztertu behar badira ere.

- Jarraibide orokor batzuk eskaintzea (ekolinguistikaren printzipioa jarraituz egin lezakeena).

Emaitza: 5. ataleko jarraibide teoriko-praktikoak proposatzen dizkiot Fagor E.E. enpresari.

5. JARRAIBIDE TEORIKO-PRAKTIKOAK

Ekolinguistikaren optikatik begiraturata, hona hemen Fagor-entzako eta nazioartean diharduen edozein enpresarentzako balio duten jarraibide teoriko-praktiko batzuk, hizkuntzak modu iraunkorrean kudeatzen laguntzeko:

— **Nazioarterako hizkuntza politika globala zehaztu.** Inportantea da nazioarterako hizkuntza politika global hausnartua eta adostua izatea. Politika horretan produkzio gune bakoitzerako (lekuan lekurako) politikak eta gune ezberdinen arteko harremanetarako eta funtzio orokorretarako arauak eta irizpideak jaso behar dira. Politika hori hizkuntzen garapen iraunkorra lortzera bideratu beharko litzateke. Hizkuntza-politika orokorra gauzatu ahal izateko, formazio-politikak zehaztea ere komeni da.

Bestalde, planta berriren bat erosi edo eraiki behar bada munduko txokoren batean, lehendabizi mapan begiratu behar da. Mapan agertzen diren guztiak hartu behar dira aintzat hizkuntzen berdintasun printzipioa jarraituz, eta egoera bere osotasunean aztertu.

Fagor-en kasuan, maila lokalerako euskararen politikak oso ondo zehaztuta ditu, baina ez dauka hizkuntza-politika globalik esplizitatuta. Beraz, ekolinguistikaren printzipioak kontuan hartu eta politika orokorra zehaztea proposatzen diot.

— **Funtzioak birkokatu.** Hizkuntza politika orokorra zehaztu ondoren, enpresak diagnostikoa egin beharko luke, eta ondoren aldagetak planifikatu. Laburbilduz, pauso hauek jarrai daitezke:

- Gune bakoitzean funtzio gehiegi dituzten hizkuntzak identifikatu.
- Era berean, funtzio gutxiegi dituztenak ere identifikatu.
- Funtzioak hizkuntza batetik bestera gradualki pasatzeko plangintza diseinatu eta lekuan lekuko hizkuntza gutxituak normalizatzeko plangintzak diseinatu.

Fagor-en kasuan, eranskineko taulan agertzen dira diagnostikoa eta funtzio-proposamenak. Ohar modura, aipatu nahi dut Behe silesiera (Polonian), Franko-proventzera (Frantziako Lyon-en) eta Oïl hizkuntzak

(Frantzia erdi-iparraldean) ez zaizkidala iruditzen Fagor-ek bere jardunean kontuan hartzeko moduko hizkuntzak direnik, lehenengo biak ia desagertuta daudelako, eta Oil hizkuntzen kasuan horiek batzetik eta estandarizatzetik sortu delako frantsesa. Beraz, ez ditut kontuan hartu hizkuntza gutxitu modura ere.

— **Ez eman ingelesari funtzio guztiak (uniformizaziorik ez).** Ingelesari funtzio guztiak emateko tentazioa izan dezakete enpresek, baina uniformizazioa saihestu egin behar da, ekolinguistikaren printzipioari kasu egin. Horrek ez du esan nahi ingelesa erabili ezin denik, baina ingelesa nonahi eta zernahitarako ez erabiltzeko irizpidea zaindu egin behar da. Izan ere, hedapen handiko hizkuntza bat leku askotara eta funtzio inportante askotara zabaltzen bada, oreka ekolinguistikoa apurtzeko arriskua dago.

Fagor-en kasuan, ingelesak funtzio gehiegi ditu eta, gainera, produkzio-gunerik gehienetan gertatzen den fenomeno da hori. Hizkuntza-politika globala zehazten duenean, kontuan hartu beharko luke ingelesaren erabilera gehiegizkoa dela, eta ingelesari oso funtzio globalak eman behar zaizkiola. Adibidez, planta guztietara iritsiko diren komunikazioetan, edo Frantzia, Polonia eta Euskal Herriko planten arteko harremanetan (3 edo gehiago direnean).

— **Subsidiarotasun-printzipioa aplikatu: tokian tokiko hizkuntzari funtzio eksklusiboak.** Subsidiarotasun-printzipioa da hizkuntza-politika orokorrerako markoa zehazteko erabili beharreko irizpide nagusia: hizkuntza *lokal* batean egin daitekeen guztia ez dadila egin hizkuntza *globalago* batean.

Fagor-en kasuan, gradualki funtzio eksklusiboak eman behar zaizkio, adibidez, euskarari Euskal Herriko plantetan. Lonbardera, wu eta amazigeraren kasuan ere, azterketa sakonagoa egin behar dela iruditzen zait: errealitatea bertatik bertara ezagutu eta bertako komunitateekin kontrastatu aukera errealak.

— **Hizkuntza lokalak zertarako, estatu-hizkuntzak zertarako eta ingelesa zertarako.** Hizkuntza-politika orokorra zehazterakoan, hiru mailatako harremanak bereizi daitezke: lekuan lekuko planta bakoitzeko harremanak; gune geografiko ezberdinetako planten arteko harremanak; eta planta guztien arteko harremanak.

Hiru maila horietarako irizpide orokor batzuk emango ditut, ekolinguistikaren optikatik begiraturaz:

- **Produkzio gune bakoitzeko edo lekuan lekuko planta bakoitzeko harremanetan:** lekuan lekuko hizkuntza(k) erabili.

Fagor-en kasuan, Euskal Herriko plantetan, esaterako: kide guztiek euskaraz ondo ulertzen duten harreman-sareetan euskara hutsez

funtzionatzera jo ahoz eta idatziz. Eta, gaztelania behar-beharrezkoa den sareetan, gaztelaniaz ere bai.

- **Gune geografiko ezberdinetako planten arteko harremanak** (komunitate linguistiko ezberdina duten produkzio gune berezituaren artekoak): finkoak diren dokumentu idatzietan (formatuak, komunikazio orokorak) lekuan lekuko lehentasunezko hizkuntza biak erabili.

Fagor-en kasuan, Euskal Herriko eta Poloniako lankideek konpartitzeko txantiloak euskaraz eta polonieraz idatzita (bi hizkuntzatan).

- **Ahozko harremanetan**, aldiz, estatu-hizkuntzei eman diezaiekegu funtzio hori.

Fagor-en kasuan, Hego Euskal Herriko eta Poloniako planten arteko harreman iraunkorretan, gaztelania edo poloniera erabil daiteke (kasu batzuetan egiten da), Poloniako langileei gaztelania irakatsiz eta Euskal Herrikoei poloniera irakatsiz.

- **Produkzio gune edo planta guztien arteko harremanak**: funtzio horiek ingelesak bete ditzake, betiere 3 komunitate linguistiko ezberdin baino gehiagoren arteko harremanak badira eta beste estatu-hizkuntza batek bete ezin badu funtzio hori.

Fagor-en kasuan, normalki ondo betetzen da hori. Kontua da bi guneren arteko harremanetan ere sartzen dela ingelesa funtzioak betetzera, funtzio hori beste hizkuntza batzuk bete beharko lukeenean (adibidez, Euskal Herria eta Poloniako lankideen arteko dokumentu finkoetan ingelesa kendu eta euskara eta poloniera sartu).

— **Langileek hizkuntza gutxitua ikas dezaten neurri eraginkorrak hartu.** Lekuan lekuko langileen artean hizkuntza gutxituaren aldeko ikaskuntza-prozesua indartuko duen neurriak hartzea komeni da. Adibidez, komunikazio orokor batzuk hizkuntza gutxituan zabalduz, programa informatikoren batzuk hizkuntza gutxituan soilik erabiliz, edota lanpostu-eskaintzetan hizkuntza gutxitua jakitea eskatuz. Horrela, langileek hizkuntza gutxituak ere ikasteko beharra sentituko dute.

— **Hizkuntza aberastasuna bultzatu: langile eleanitzak, enpresa eleanitzak.** Gune bakoitzean kanpora begirako harremana duten langileek 3 hizkuntza menperatzera jo behar da. Eleaniztasunean eta kudeaketa iraunkorrean oinarritutako politika aplikatzen bada, langileak hiru bat hizkuntzarekin harremanetan egongo dira gutxienez (ahoz eta idatziz), eta hizkuntza-aniztasuna kudeatzeko kultura zabaldu eta barneratu egingo da enpresako langileen artean. Langile eleanitzak garatuz, enpresa eleanitz bihurtu du eta, dakigunez, eleaniztasunak negozio-aukerak zabalduko ditu.

Fagor-en kasuan, oro har ingelesa da langileen formaziorako bultzatzen duen hizkuntza nagusia, eta Euskal Herriko plantetan euskara ere bai. Hala ere, lortu da, adibidez, hainbat lagunek poloniera ikastea eta Poloniako plantan bilera batzuetan poloniera erabiltzea euskaldunen eta

poloniarren artean. Oso aberatsa litzateke, halaber, hainbat langilek txinera, arabiera, frantsesa... jakitea, eta Frantziako plantetako lankideek gaztelania ikastea ere bai, adibidez.

— **Hizkuntza endemikoak³ zaindu eta babestu lehentasunez.** Nazioartekotutako enpresek hizkuntza endemikoak bereziki zaindu eta babestera jo beharko lukete, eta ezinbestean horiei eman lehentasuna. Adibidez, euskara desagertuko balitz, denon (mundu osoaren) ondarea den gure hizkuntza desagertu egingo litzateke. Beraz, enpresek ere hizkuntza endemikoei lehentasuna eman behar diete, bai enpresa barruan eta kanpoan funtzioak ematerakoan, eta baita hizkuntza gutxituen normalizazio planak abiatzerakoan ere.

Fagor-en kasuan, euskara babestea tokatzen zaio lehentasunez, eta urteetan dauka euskararen normalizazioa sustatzeko plangintza. Lonbardera, wu eta amazigeraren kasuan ere hizkuntza horiek babesteko zer egin dezakeen sakonago aztertu beharko luke.

Amaitzeko, enpresen nazioartekotzerako nire proposamen ekolinguistikoak esaldi bakarrean laburbildu daitezke: *Hizkuntza bakoitza bere lekuan, eta leku bat hizkuntza bakoitzarentzat.*

EMUN aholkularitza zerbitzuan uste dugu hemen aurkeztutako hipotesia eta ematen diren jarraibideak interesgarriak izan daitezkeela enpresen gizarte erantzukizunean sakondu nahi duten enpresa berritzaileentzat. Nazioartekotutako enpresei gizarte erantzukizuna modu berri-tzailean garatzeko aukera bat proposatu nahi diegu, hortaz.

Amaitzeko, krisi garaian lehiakortasuna eta lehiakideengandik ezberdintzeko premia handitu egingo den hipotesia ere mahai gainean jarri nahi dugu. Hori hala izanik, etorkizunean diskurtso honek indarra har dezake. Horretan asko lagunduko lukete ikerketek. Ikerketa gehiago eta emaitza esanguratsuak behar dira enpresaburuen begietara diskurtso hau sinesgarri bihurtzeko eta hizkuntzen kudeaketa iraunkorra praktikan negozio-aukera bilakatzeko. ■

ERANSKINAK

1. Fagor-eko atzerriko plantetara Euskal Herritik arduradun postuetara joandako pertsonen ahotik jasotako adierazpen batzuk:

- “Poloniako plantan 6 urte egin ditut eta hirugarren urterako oso ondo egiten nuen polonieraz. Hasi-ran ingelesez moldatzen nintzen, baina geroztik beti polonieraz: pertsonen egoera emozionalak ezagutze-ko eta langileengana gerturatzeko oso eraginkorra izan da hango hizkuntza ikastea eta erabiltzea. Des-konfiantzazko hesiak apurtzeko balio izan du, eta ate asko zabaltzen ditu. Langileek asko baloratzen dute beraien hizkuntzarekiko errespetu hori izatea”.

- “Niri, aldiz, poloniera ez menderatzeak arazo asko sortu dizkit: ulermen-arazoak, babes falta, ziurga-betasuna..., ezin konektatu jendearekin”.

- “Ni ingeles maila onarekin joan nintzen Poloniara, eta uste nuen horrekin nahikoa izango zela. Goiz batean galdu egin nintzen kalean eta ezin nuen asmatu hotelerako bidea. Kalean, hamar laguni galdetu

nien ingelesez, baina inork ez zekien ingelesez. Polonieraz, errusieraz eta alemanez erantzuten zidaten, ez ingelesez... Nire baitako ingelesaren mito hori goitik behera erori zen. Asko aberastu ninduen esperientzia hark. Lekuan lekukoak dauka balioa. Integratu nahi baduzu, bertako hizkuntza ikasi behar duzu.”

- “Teknika asko daude eta esperientzia ederrak ezagutu ditut: Errusiatik pertsona bat ekarri eta informatika irakatsi genion, azkarragoa zelako informatikari bati errusiera irakastea baino”

- “Balio sozialak baditugu, lekuan lekuko hizkuntzara itzuli behar ditugu dokumentuak, eta ez denak ingelesez jarri...”

- “Frantziako bulego zentralean aurkezpen bat egin genuen ingelesez, eta mindu egin ziren bertakoak (frantsesez egin ez genuelako). Lekuan lekukoak dauka balioa”

2. Taula: FAGOR E. E. enpresaren nazioartekotzea: hizkuntza-erabileraren azterketa

	ARLOAK / FUNTZIOAK	Arrasate, Oñati, Eskoriatza, Gasteiz, Basauri, Bergara, Azpeitia,... (HEGO) EUSKAL HERRIA	Wroclaw / Breslau POLONIA	Mohammedia MAROKO	Paris, La Roche, Alzenay; Vendome, Orleans; LYON FRANTZIA	Verolanoova ITALIA	Shangai TXINA
HIZKUNTZA ANIZTASUNA	Enpresan erabiltzen diren hizkuntza guztiak (presentzia edo erabilera minimoa dutenak) >> Guztira: 12 hizkuntza	4 hizkuntza: - Gaztelania - Euskara - Ingelesa - Frantsesa	4 hizkuntza: - Poloniera - Ingelesa - Gaztelania - Euskara	5 hizkuntza: - Frantsesa - Arabiera klasikoa - Marokoar arabiera (darija) - Amazigera (berberera) - Gaztelania - Ingelesa	2-3 hizkuntza: - Frantsesa - Ingelesa - Gaztelania zuzendari nagusiak bakarrik	5 hizkuntza: - Italiara - Ingelesa - Lonbardera - Frantsesa - Gaztelania	3 hizkuntza: - Txinera (mandarinera) - Wu (shanghainise) - Ingelesa
HIZKUNTZA NAGUSIA	Enpresaren funtzionamendu hizkuntza nagusia (barne funtzio gehienak, bereziki instituzionalak betetzen dituenak) >> Guztira: 8 hizkuntza	- Gaztelania - Euskara (gutxiago, baina gero eta gehiago, gaztelaniarekin batera, plangintzapean)	- Poloniera - Ingelesa (gutxiago)	- Frantsesa	- Frantsesa	- Italiara	- Txinera - Wu (shanghainise) (ahozko funtzio formal eta informaletarako; ez, ordea, idatzirako)
HIZKUNTZEN MAPAN	Lekuan lekuko hizkuntza guztiak (estatu-hizkuntzak eta minorizatuak,...) >> Guztira: 14 hizkuntza	- Euskara - Gaztelania	- Behe Silesiera (Lower silesian) - Poloniera	- Marokoar arabiera (darija) - Arabiera klasikoa (estandarra) - Amazigera (berberera; tamazight aldaera) - Frantsesa	- Franko-provenzeroa edo arpitana (Lyonen) - Oïl hizkuntzak (Paris, La Roche, Alzenay, Vendome eta Orleans-en) - Frantsesa	- Lonbardera - Italiara	- Wu - Txinera
GUTXIEGI ERABILIAK	Hizkuntza ikuspegi ekologiko hutsetik, FUNTZIO DEFIZITA izan dezaketen hizkuntzak, Fagor-en (gehiago) erabiltzeko zilegitasuna izan lezaketelakoan (aztertzeke). >> Guztira: 9	- Euskara (dagoeneko hasita dago euskararen erabilera indartzeko prozesua, plangintzapean)	- Behe Silesiera (Lower silesian)	- Amazigera (berberera; tamazight aldaera) - Marokoar arabiera (darija) - Arabiera klasikoa (estandarra)	- Franko-provenzeroa edo arpitana (Lyonen) - Oïl hizkuntzak (beste planta guztietan)	- Lonbardera	- Wu (idatzizko arlo guztietan)
	Horietatik berreskuratzeko eta Fagor-ek kontuan hartzeko modukoak (hizkuntza-egoera eta bestelakoak kontuan hartuz, gutxieneko arrakasta-aukera eta zilegitasuna dutenak) >> Guztira: 6	- Euskara		- Amazigera (berberera) - Marokoar arabiera (darija) - Arabiera klasikoa		- Lonbardera	- Wu
GEHIEGI ERABILIAK	Hizkuntza ikuspegi ekologiko hutsetik GEHIEGIZKO FUNTZIOA izan dezaketen hizkuntzak (aztertzeke) >> Guztira: 5	- Gaztelania (euskarari funtzioak uzte aldera) - Ingelesa	- Ingelesa	- Frantsesa (amazigerari, marokoar arabierari eta arabiera klasikoari funtzioak uzte aldera)	- Ingelesa	- Italiara (lonbarderari funtzioak uzte aldera)	- Ingelesa - Txinera (wu hizkuntzari lekua uzte aldera)

3. Hizkuntza endemikoa: Hedadura txikiko eskualde batean soilik hitz egiten den hizkuntza. Lurralde horretatik desagertuko balitz, betiko galduko litzateke hizkuntza hori munduan.

BIBLIOGRAFIA

Irizar, Abel (2007): Proposamen ekolinguistiko bat Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatibaren nazioartekotzerako. In http://hiznet.asmoz.org/images/stories/ikerketa_lanak/Abel%20Irizar.pdf

- Martí, Felix eta beste hainbat (2005): *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Bilbo: EHUko argitalpen zerbitzua.
- A. Barreña eta beste hainbat (2005): *Europako hizkuntzak*. Bilbo: Unesco Etxea.
- Foundation for Endangered Languages (2004): *Endangered Languages and Linguistic Rights on the margins of nations*. Joan A. Argenter & R. McKenna Brown.
- UNESCOren Albistaria aldizkaria, 119. alea (2000ko urria).
- Juaristi, Patxi (2006): *Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean*. In http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1165311566
- UNESCO Red Book on Endangered Languages: Europe (1999). In http://www.helsinki.fi/~tasalmin/europe_index.html
- Grimes, Barbara F. (2000): *Global Language Viability; causes, symptoms and cures for endangered Languages*. In http://www.sil.org/sociolx/ndg-lg-grimes_article.html
- Bastardas, Albert (2002): *Política lingüística mundial a l'era de la globalització: diversitat i intercomunicació des de la perspectiva de la complexitat*. In <http://www6.gencat.net/llengcat/noves/hm02estiu/metodologia/bastardas.pdf>
- Bastardas, Albert (2002): *Biological and Linguistic Diversity: Transdisciplinary explorations for a Socioecology of Languages*. In <http://www.teluu.quebec.ca/diverscite/SecArtic/Arts/2002/bastarda/ftxt.htm>
- Una nueva estrategia marco para el multilingüismo; comunicación de la comisión al consejo, al parlamento europeo, al comité económico y social europeo y al comité de las regiones. In http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/site/es/com/2005/com2005_0596es01.pdf
- Suberbiola, Pablo (2005-2006): *Hizkuntza garapen iraunkor baterantz*. In *HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*, Asmoz Fundazioa.
- Memoria de sostenibilidad, 2005. Fagor Electrodomésticos, Koop. E. In www.fagor.com
- ELAN: *Effects on the European Economy of Shortages of Foreign Language Skills in Enterprise* (2007): CILT, The National Centre of Languages. In http://ec.europa.eu/education/policies/lang/doc/elansum_en.pdf
- DTI (1999) *Overcoming language and cultural barriers in business: a guide for exporters*. (National Languages for Export Campaign) London: Department of Trade and Industry.
- European Commission: *Multilingualism boosts European competitiveness* (2007). In http://www.eblul.org/index.php?option=com_content&task=view&id=115&Itemid=1

- Moscoso, Francisco (2006). Situación Lingüística en Marruecos: Árabe marroquí, bereber, árabe estándar, lenguas europeas. In <http://www.pliegosdeopinion.net/pdo11/11pensamiento/11lenguas/Situacionmoscoso.pdf>
- Amazigh herria ezagutzen. In www.sarean.com/sarean/date/2004/03/14
- Bjeljac-Babic, Ranka: Seis mil lenguas, un patrimonio en peligro. In http://www.unesco.org/courier/2000_04/sp/doss01.htm
- Marruecos, seis lenguas en confusa convivencia. In <http://www.opensubscriber.com/message/ideolengua@gruposyahoo.com/6835177.html>
- Harmon, David and Loh, Jonathan (2004): A Global Index of Biocultural Diversity. In <http://www.terralingua.org/OtherPubs/IBCDICE.PDF>